

Darcy Hennesseyk,

Euskal Diasporaren Astea ospatuko da Arratian

Euskal Diasporaren Astea egingo da urri lehenengoaren 3tik 5era Zeanurin, Igorren eta Areatzan, Argentina eta Euskal Herriaren arteko hartu-emonak ardatz hartuta. Bertsoak, payadea, dokumentalak, herri-kirolak, musikea eta jantzak batuko dituan egitarauaren bidez, diasporaren ekarpena eta ondarea ezetutera emon, Arratia nazinoarteko euskal sareagaz konektatu eta arratiarrak diasporaren errealidadera hurreratu gura dabez antolatzaileek. **13. orrialdea**



Artea eta Zeberioko jaiak urri lehenengoan



Urri lehenengoan jai-giroa nagusituko da Zeberion eta Artean. Sandoni jaiak hilaren 2tik 7ra izango dira, eta Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren ikuskizuna ikusteko aukerea egongo da txupinazoaren bezperan. Eingo, Alarma Morea, Lehian, EH Sukarra eta Kiliki Frexko be izango dira bertan. Artean, barriz, Andra Mari jaiak 7tik 13ra ospatuko dabez, jantzak, buruhandiak, kontzertuak, erromeriak, antzerkia, bertsolariak, mozerroak eta adin guztietarako beste hainbat ekintzagaz. **5. eta 7. orrialdeak**

ZEANURI

Ermiten Mendi Martxea urri lehenengoaren 5ean izango da

Zeanuriko ermita eta baseleizen ondarea ezetuteko aukerea emongo dau aurtengo mendi martxeak. Ibilbideagaz batera, ermiten historia eta balioa ezetuarazoteko proiektu berezi bat izango da aurtengo barrikuntzea. **8. eta 9. orrialdeak**

ARRATIA

Ikastaroak martxan

Areatza, Bedia, Dima eta Lemoako udalek 2026-2027 kursorako ikastaro eta tailerren eskaintzea aurkeztu dabe. Kirola eta osasuna lantzeako aukerez aparte, eskulanak, euskerea, jantzak, teknologia eta sormena landuteko proposamen ugari dagoz, adin eta interes desbardinetara egokituta. **6. orrialdea**

IGORRE

Bizirola alkargunea zabalduko dabe Igorren

Igorren topagune barri bat ipiniko dabe martxan, herritarren arteko hartu-emonak eta bizitza aktiboa sustatuteko. Bizirola alkarguneak, batez be adinekoei begira, jarduerak, tailerrak eta beste hainbat ekintza egiteko espazioa eskainiko dau. **5. orrialdea**



Zeberioko Udalak eta jai batzordeak
jai zoriontsuak opa deutesuez!

Ondo pasau
sandonietan



- Gida Baimenak
- Animalia Arriskutsuak
- Nautika
- Arma lizentziak
- Segurtasun pribatua
- Garabiak

ORDUTEGIA
Asteazken eta ostegunetan
09:00 - 13:00
Astelehen, astearte eta ostegunetan
16:00 - 20:00

www.psicotecnicoanguren.eus - 611 72 88 55
info@psicotecnicoanguren.eus



Literatura txokoa

ANDAR, UNA FILOSOFÍA

Ibiltea eta filosofia gustuko badozuz, hauxe dozu zure liburua. Baina bata zein bestearen zale bazara be, atsegin suertauko jatzu ikustea zelan lotzean dituan gai biak.

Alde batetik, autorearen beraren ibiltari buruzko eretxiak topauko dozuz liburuan: paseoaren plazerra eta pozaren arteko desbardintasunak, ibiltearen geldotasuna eta sortzean deuskun ondoizate mental, fisiko eta espirituala goraipatzea, baita gure gizarteko prisen kontrako antidoto erreal zein sinbolikotzat erreibindikatutea be.

Bestetik, hainbat filosofo eta idazlek ibilteagaz izan eben hartu-emona, kasurako:

Nietzsche: Kanpoko martxea

bere lanaren ardatza izan zan, bera bakarrik sei-zortzi ordu egunean. Nietzscharentzat ibiltea eta lana bat dira. Holantxe kontrolatzen dau bere buruko sufrimendua eta pentsau eta sortzean dau bere lan eskerga.


Rimbaud: Hauxe bere esaldi ezaguna: "Oinezkoa naz, ez beste ezer"; beti igesean, beti oinez, inon luzaro gelditu barik leku batetik bestera, antsia geldiezinagaz inoan: "Goazen! Ibilketara!".

Rousseau: Dino ezin dauala benetan pentsau, konposatu, sortu, oinez ez bada. Bere atzen etapan ibili dabil basoetan Naturearen eskuetatik sortutako gizakia, gizaki guztiz primitiboa, bere barruan berraurkitzeko. Natureagaz bat egitea dau helburu.

Aztertzen dauz baita be Thoreau, Kant, Nerval, Gandhi... euren bizitzetako zenbait datu interesgarri emoteaz aparte adierazoten jaku zelan eta zertarako erabili eben ibiltea filosofook bat eginik euren mundu ikuskera eta praktika hori; argi itxiz kasu horreetan guztietan ibiltea kontu fisiko automatikoa baino askoz gehiago zala.

Agertuko jakuz liburuan ibiltari mota desbardinak, urietako *flâneur*-ak, bideetako erromesak zein Himalayako monjeak. Agertuko jakuz ibiltari lotutako emozinoak eta baita be ibilteko modu eta leku desbardinaren azterketa filosofikoa.

217 orrialde eta 25 kapitulutan banatuta datorren liburua, 18



Frédéric Gros

Andar, una filosofía

Taurus argitaletxea, 2014

248 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK	Larrialdiak Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00 SOS DEIAK 112	Zeberio: 94 500 67 95 Udaletxeak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 05 Areatza: 94 673 90 10 Bedia: 94 631 42 00 Dima: 94 631 57 25 Igorre: 94 631 53 84 Lemoa: 94 631 30 05 Ubide: 945 45 03 22 Zeanuri: 94 673 91 46 Zeberio: 94 648 10 79	Bizkaibus 94 612 55 55 3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era. Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Atzen zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro. 3911 Linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio Bilbotik. Lanegunetan: 07:00retatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino. Eldorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro. Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro. 3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro. Eibartik. Lanegunetan: 06:00etik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro. Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro. 3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,	Otxandio: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin. Ubide: Lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordukin behin. * 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira. Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro. 3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik) Bilbotik. Lanegunetan: 07:00retatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik. Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00retan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik. 3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino bakarrik. Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20. *Artearaino bakarrik. Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40. Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00. Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:	13:05, 15:30, 20:40. Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean. Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean. Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10. Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20. La Union 94 427 11 11 A3712 linea. Bilbo-Gasteiz Lanegunetan: 06:45ean urteten dau Bilbotik. Zapatuetan: 08:45ean urteten dau. Domeka eta jaiegunetan: 10:30ean urteten dau. A3712 linea. Gasteiz-Bilbo Lanegunetan: 15:15ean urteten dau Gasteizetik. Zapatuetan: 16:30ean urteten dau. Domeka eta jaiegunetan: 16:30ean urteten dau. Eskualdeko garraioa. Erreserbak 945 18 20 60 6A linea. Otxandio-Legutio Lanegunetan: Ubiden 06:35ean, 07:15ean, 09:20an, 11:20an, 14:45ean, 15:25ean, 17:15ean eta 20:25ean. Astegoienean jaiegunetan: 08:45ean, 11:55ean, 16:40an eta 18:40an. 6A linea. Legutio-Otxandio Lanegunetan: Ubiden 09:05ean, 11:05ean, 14:30ean, 15:10ean, 17:00etan, 20:10ean eta 21:15ean. Astegoienean jaiegunetan: 10:35ean, 13:40an, 18:25ean eta 21:30ean. Lotura Gasteiz-Durango 18 lineagaz.
	Guardiako farmaziak 09:00etatik 22:00etara Abuztuaren 31tik urri lehen. 6ra Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27 Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154 22:00etatik 09:00etara Gorria Montoya (29-4). Amorebieta-Etxano. Urri lehenengoaren 7tik 13ra Traver Ibañez. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g Tel.: 94 631 39 50 eta 646 830 571 22:00etatik 09:00etara Melero (5-11). Amorebieta-Etxano. Urri lehenengoaren 14tik 20ra Badiola. Artea. Herriko Plaza 7 Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048 22:00etatik 09:00etara Sarasketa (12-18). Amorebieta-Etxano. Zeberioak ez dau guardiarik egiten. Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara Cometza, Ana. Francisco Kortabarria 2. Basauri. Tel.: 94 449 05 87	Arratiako Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 mankomunitatea@arratia.eus Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea 94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com Gertu bulegoa Igorre 94 406 80 00 Areatzako Parketxea 94 673 92 79 Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51 kulturetxea@igorre.net Lemoako Kotxepin Kultur Etxea kotxepin@lemoa.eus Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus Areatzako Notariotza 94 673 92 26 Errota Fundazioa 688 854 543 info@errota.eus Arratiako Musika Eskola 94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu			

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta kudeatzailea:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Ager Barragan. **Webgunearen arduraduna:** Ager Barragan. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Maketazinoa:** Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Irantz Basterretxea (Dima), Mikel Madrazo (Igorre), Mikel Alonso (Arantzazu, Areatza eta Artea), Aimar Arandia (Bedia eta Lemoa), Irati Urien (Ubide), Kepa Artaraz (Zeanuri) eta Mikel Lazaro (Zeberio). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria, **Instagram:** @begitu.eus, **Mastodon:** @begitu, **X:** @BegituEus **YouTube:** @BegituAldizkaria

Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatz eta egileza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derriгорrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkeror, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

ALKARREGAZ

Austarri Mendi Kluba

Austarri Mendi Taldea Zeberion sortu zan 2011ko zemendiaren 26an, Felix Jul lehendakari zala. Austarri Kultur Taldeak, herrian mendi talde bat osotzeko asmoz, batzar bat deitu eban Zubialdeko Eskola Zaharrean, bertako gazte zein helduen talde batek bultzatuta. Bertan 32 herritar inguru bildu ziran eta, besteak beste, ze jarduera mota burutu gura ziran eztabaidatu eben, beste herri batzuk eredu hartuta. Aldi berean, taldearen ikurra zein izango zan onartu zan, baita lokala non izango zan be (eskola zaharreko lokaletako bat). Lehenengo urte horretan 140 bat bazkide izan ziran.

2021eko bagilaren 19an Austarri Mendi Kluba eratu zan, berezko nortasun juridikoa eta jarduteko nortasuna eukana, mendia eta neguko kirol-modalidadeak bultzatzeko helburuagaz. Gaur egun, Olga Maiz da lehendakaria, 210etik gora dira Austarri Mendiko kide eta hilebetero urtekeraren bat egiteaz aparte, noizean behin beste ibilaldi batzuk zein mendi-jardunaldiak antolatzen dabez, eta urte birik behin be, Zeberio Harana mendi martxea prestatzen dabe.

Hurrengo urtekerea, hilaren 13an, Cadagua-Canto Muriel-Cantonad-Lezana izango da. Informazino gehiago gura izan ezkeror, sare sozialetan dago eskuragarri: [@austarrimenditaldea](https://www.facebook.com/austarrimenditaldea) Facebooken eta [@austarrimendi](https://www.instagram.com/austarrimendi) Instagramen.

ERETXIA

Burrukan bat

Urte sasoi kontua ez dan arren, urtero bagilean ondorio bardina ateraten dot: asko gara eta horrek poztan nau. Batzutan, ez beti, nahikoa izaten da asko izatea, hau da, masa kritikora ailegetea eskubideak edo aldarrikapenak gauzatu ahal izateko. Edozelan be, asko izateak lagundu egiten dau.

Mobimentuaren izena letra ugarik osotuten dabe eta beraz, talde ugarik osotuten dabe mobimentua: L, lesbianek; G, gayek; T transek (andra eta gizon transak); B, bisexualek; I, intersexualek; Q, queerek (bere dibersidade guztian), A, asexual eta arromantikoeak, eta +, heteroarauagaz indentifiketan ez diran beste guztiek, hain zuzen be.

Bai, asko gara eta gure existentzia hutsa, disidentzia da, eta ikusgai agertzea, aktibismo moduko bat. Gainera, antolatuta, indar handia daukagu. Gure historia begiratzea baino ez dago: Franco hil zanetik irauli egin doguz gizartea eta legeak.

1980an joan nintzan lehenengoz, Bilbon, Harrotasunaren Eguneako manifa batera. Harrezkeroztik, gauzak asko aldatu dira, zorionez. Manifak eurak, esaterako, ze orduan oindino ez egoan ostadar banderarik. Baita berbak be. Sexu Askapenerako Mobimentua zan orduan eta LGTB siglak jaiotzen egozan. Gizartean oindino transak traxestiak ziran; gayak, marikoiak, eta lesbianak, tortillerak. Izenak aldatzen eta ugaritzen joan dira eta aldatzen jarraituko dabe errealdadea zehatzago izentau guran. Baina danok desbardinak izan arren, sistemearen aurrean gauza bera gara: sexu eta genero disidente. Eta disidentzia horretaz harro gagoz.

Harrigarria da zenbat aldatu dan gizartea onerako, zelan irauli dan. Legeak aldatu egin dira, eta horreen ondorioz, jentearen bizimodua asko hobetu da. Izan be, gaur egun, estaduan behintzat, pentsaezina da, gay, marika edo



BEA AZPIRI
L & L 60+ taldeko kidea

trans izate hutsagaitik kartzelan amaitzea, edota lesbiana edo bollera izateagaitik zoroetxean. Errazoizkoa dan moduan, oin homofobia da lege zigor tuta dagoana eta ez sexu eta genero disidentzia; eta, pasau dan bagilean, sasoi baten hainbeste bultzatutako homosexualidadea sendatzeko terapiak, kartzelagaz zigortzea onartu eban Espainiak Kongresuak. Aurrerapen handiak dira horreek.

1989an, Berlingo Harresia bota zan. Kapitalismoa izan zan garai le eta, beragaz, indibidualismoa, hipertrofiaraino hazi zana kolektibismoaren kaltetan. Egoera honetan, identidadeak inoz ez bezala loratu ziran; hau da, errekonozimentua Nancy Fraser-eri jarraituz. Birbanaketea barriz, bistatik desagertu zan. Eta munda posmoderno egin zan.

Identidadeen loratze honek LGTBQA+ jentearen errekonozimentua be ekarri eban. Beste modu baten esanda, sexu orientazio eta genero identidade desbardinak ikusgai eta gizartearen errespetuaren jaube egin ziran. Gizartearen balore aldaketea lortu zan eta honek estigma (ia) desagertu arazo eban. Eta lege aldaketek jente askori biolentzia bako bizitzak ahalbideratu deutesiez.

Baina honeri lotutako indibidualismoak galera bat be badakar. Eta arriskutsua be izan daiteke. Izan be, iragan hurbilean, baina baita gaur egun be, familia eta inguruak baztertutako jenteak, kolektiboan topau izan dau aurrera egiteko behar diran alkartasun, babesa eta laguntzea. Talde berekoen alkartasuna, jakina, baina kolektiboko beste letek izentatzen daben taldeena be bai. Momenturik lat-

zenetan, ezinbestekoa izan da, baina beti da beharrezkoa. Izan be, androk eta LGTBI kolektibokook ezin doguz inoz bermatutzat emon lortutako eskubideak, eta tokau jakun momentu historiko honetan, kezkatzeko moduko panoramea ageri da: eskoia, batez be muturrekoa, goraka doa munda osoan eta haren obsesinoa da migranteen, andren eta LGTBIQ+ jentearen eskubideak kentzea.

Atzen urteotan atzera egin dabe eskubideok munduko leku askotan. Ez bakarrik, Afrikan, AEBn eta Europan be bai. Munda globalizau honetan, ezer ez dago urrun eta beste lekuetan gertatzen dana, gurean be gertatu daiteke berandu baino lehen.

Honen aurrean benetako etsaiaren kontra burrukan bat egitea ezinbestekoa da, argi eukitea zein dan etsaia eta zein laguna. Aspaldion, argi ez dagoala dirudi-ta. Izan be kolektibo mailako alkartasun hartu-emonetako zatiketea bilatzen dabela emoten daben pankarta eta artikulua ugar agertzen dira. “Ez gara lesbianak, bollerrak gara” moduko gauzak, hain zuzen, distantzia bat markauz, eta -bollerrak eta lesbianak, marikak eta gayak- helburu politiko desbardinak doguzalakoa, barne eztabaidako gaietan ipinten dabe fokua. Ustezko desbardin-tasunok burruka diferenteetan ipiniko bagindu lez. Batzuk izateko, besteak desagertu beharko balira lege z. Mobimentu koloretsu honetan danontzako lekua ez balego bezala. Laguna etsaia balitz moduan. Ez ete dabil arrakala bat sortzean burrukan? Notizia ezin hobea litzateke hori eskoi muturreko eta erreakzionario guztientzat.

Ez daigun ahaztu etsaia kanpoan dagoala. Sexu-genero sistema hau dala etsaia, eta horren aurrean, bollera eta lesbiana, gay eta marika, transak eta mobimentuaren letra guztiak garala disidente. Muturreko eskoiak poderea hartu ezkeror, sexu-genero disidentzia guztia ezabatzen saiatuko da. Ez izan dudarik.

Beti harro defendatzen dogun disidentziak batzean gaitu, izan gaitzan bat burrukan; izan gaitzan konpainera benetako etsaiaren kontra.



LUMATUTEN



ILIA MITXELENA

Heriotzea eta gu

Danak batzean gaituan ziurtasun eta ziurbakotasun handiena eta bakarra, heriotzea da. Hil egingo gara. Bat-batean edo astiro, baina hilgo gara. Gure amaiera zelangoa izan leitekeen apur bat aukeratu daik egun une eta lurralde baten biziteko suertea dogu, (gaixotasun edo narriadura batetik datorrenean). Edo gure atzen nahiak idatzita itxi, gure ebatzia gure familiaren gainetik egon daiten, adostasunik ez dagoanean be. Heriotzea gurea (bakotxarena) izaten hasi da. Familiagaz edo lagunakaz berba egin daik egu ez gagozanean gure agurra zelangoa izatea gura dogun; zer egin gure gorputzagaz maila fisiko baten eta zelan agurtu gure energia, arima... maila emozional, erlijioso edo espiritualean. Bada bere familia edo lurraldea gertu ez dauanik eta

beste lurralde baten bere agurra kokatzera behartuta dagoanik. Askotan entzun izan dot heriotzeak bardindu egiten gaituala, ez dogula hemen euki dogunetik ezer eroaten... baina ondo dakigu, era berean, ez dala gauza bera mausoleo baten edo areka baten bukatzea. Hileta-errituala, bizitzatik heriotzera pasatzen dan persona horren ingurukoek behar izan ohi dogu errealidade barri hori birkokatzeko. Eta sinismenen arabera, hildakoarentzat be ezinbestekoa da. Errealidade ekonomikoak, sozialak (eta politikoak) markau dau eta markatzen jarraituko dau zein dan baktaren lekua; baita hil ondorengoa be... Beraz, nire ustez, bardintzen gaituan gauza bakarra jaio eta hilgo garala da; besterik ez... Zuk... berba egin dozu nonogaz zer gura dozun zure heriotzarako? Hitz egin dozu zeure buruagaz? Eta entzun deusazu nonori bere heriotzarako zer gura dauan? edo hil dan nonoren ebatzia errespetau dozu? Ez daigun ahaztu gu be hor egongo garala eta heriotzea be, gurea (bakotxarena eta norbanakoa) dala.

ZERTZEAN



Gu ginenean

MAITE ARRIZABALAGA

Gu ginenean, elkarrekin gertu, batuta dena zen gurea partekatua gelditu ezin genituen algara amaigabeak malkoz bustitako egun ilunak hitzik gabeko begiradak hamaika kontu elkarri eusten genion.

Baina batzuetan isiltasunak tartea hartzen du eta kanpoan geratzen zara mahai berean eserita egon arren.

Tokiz aldatzen hasi ginen konturatu gabe gure arteko hutsuneak betetzen joan ziren eta itzal bat zabaldu da tartean.

Orain ez dakit zer garen, izango garena, baina gogoan dut, gu ginenean ginen hori.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera erduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@begitu.eus helbidean.

BEGI TXINDORRA

Aita-semeak alkarregaz, naturearen erdian eta aurrean daukien paisaia zabalari begira. Irudiak badauka bidaietako momentu berezi horreen lasaitasuna: ez dau prisarik, ez dau ezer egin beharrik, ingurukoaz gozateua baino. Euren begien aurrean mundua zabaltzen da, elefantearen moduko animalia ikusgarria, amaiera bako sabana eta familian konpartidutako momentu bat. Lekua baino nogaz partekatzen dozun momentua da garrantzitsua eta holango argazkiek erakusten dabe bidaietako oroitzenen politenak ez dirala beti leku ikusgarrienetan edo plan handietan sortuten; batzutan, alkarregaz egon eta unea bizitea baino ez da behar. Eta urteak pasau arren, holango irudi batek gogora ekarri leike egun hareetako sentsazioa.



Argazkia: Jon Durana.



Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa
hagin klinika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologoa

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zerbaita: 900
R.P.S. 31/06

ZEBERIO

Sandoniak ospatuko dabez astean

Urri lehenengoaren 2an hasi eta 7an amaituko dira aurtengo Sandoni jaiak eta sei egunez murgilduko dira zeberioztarrak ekitaldiz beteriko jaietan.



Ager Barragan

Martitzenean, hilak 2, txupinazo eguna baino lehenago, eguerdian egingo dan meza eta barauskarriaren ostean, Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore pailazoeke euren Zerua lapurtu dute ikuskizuna emongo dabe jaien bezpereari alaitasuna emon eta hurrengo egunean sandoniak ahalik eta ondoen hasteko.

Jaiei hasikera ofiziala hurrengo egunean, hilaren 3an, eguena, emongo deutsee zeberioztarrek arrastiko 19:00etan egingo dan txupinazoaren ekitaldi eta honen jaurtiketeagaz. Urtero lez herri-tarrek, Eingo taldearen musikea-gaz batera, limonada dastaketea egiten daben bitartean, txikiek be ondo pasetako aukerea eukiko dabe Txubel eta buruhandien aurretik korrika egiten.

Musikea be nagusi izango da aurtengo sandonietan. Txupinazoaren eguna, aitatu moduan, Eingo taldeak girotuko dau bere musika herrikoilagaz eta hurrengo egun bietan, bariku eta zapatuan, eszenatoki handiko kontzertuen momentua izango da. Barikuan

runba eta pasodobleek markauko dabe gaua. Lehenengo eta arrastia girotuteko 19:00etan La Tuna Bando elektrotxarangeak herrian zehar mobiduko ditu zeberioztarrak. Elektrotxarangeak amaituten dauanean, Alarma Morea talde zumarragarrik emongo dau kontzertua eta euren runba eta musika flamenkoak herritarrak jantzan ipiniko dauz. Ostean, jantzakaz jarraituteko, Lehian erromeria taldea egongo da ohol-tza gainean gaueko ordu txiki-tararte.

Zapatuan barriz, arrastiko 19:00etan hasiko da musikea Zeberiotik ibiltzen Zutik elektrotxarangeagaz eta gauean, 23:00etatik aurrera, EH Sukarra talde mitikoak hartuko dau testigua. Gaua ondo amaituteko, Chill Mafia taldeko abeslaria izan zan Kiliki Frexxkok bere *Itze 1* bakarkako lana aurkeztuko dau Zeberio-ko frontoiko eszenatokian.

Urri lehenengoak 2, eguaztena
13:00etan, mezea eta ostean kopaua.
18:00etan, Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren, *Zerua lapurtu dute* lana.

Urri lehenengoak 3, eguena
19:00etan, txupinazoa Zubialde eskolearen eskutik.
19:00etan, Txubel eta buruhandiak.
19:00etan, Eingo taldea.
19:30ean, limonada dastaketea.
21:00etan, zeberioztarren herri afaria.
22:30ean, Eingo taldea.

Urri lehenengoak 4, barikua
12:30ean, umeentzako jolasak.
15:00etan, jubiladuen bazkaria.
17:30ean, esku-pelotea Zeberio Mandoiaren eskutik.
19:00etan, La Tuna Bando elektrotxarangea.
22:30ean, Alarma Morea.
00:00etan, Lehian erromeria.

Urri lehenengoak 5, zapatua
10:30ean, Asel Ozerinjaregi Txirrindulari Martxa.
14:00etan, Makailao, Patata tortilla eta Paella Txapelketak.
19:00etan, Zutik elektrotxarangea.
23:00etan, EH Sukarra.
01:00etan, Kiliki.
21:00etatik 03:00etara, taxi zerbitzua egongo da doban Ugao, Artea eta Igorre artean. Zerbitzua eskatzeko 609 610 855 telefonora deitu behar da.

Urri lehenengoak 6, domeka
12:30ean, umeentzako jolasak.
13:00etan, mezea.
13:30ean, kalejireia.
18:00etan, profesionalen pelota partiduak.

Urri lehenengoak 7, astelehena
13:00etan, kalejireia Etxebarria aita-semeakaz.
15:00etan, indaba jana.
18:00etan, Rockalean elektrotxarangea.

IGORRE

Bizitza aktiboa, hartu-emonak eta komunitadea sustatuteko topagune barria Igorren

Bizi Batzordearen eskutik, 2016tik dago martxan Igorren Bizi Igorre Lagunkoia ekimena eta aurtan ekimena martxan ipini zanetik hamar urte beteten diranean Biziro alkargunearen proiektuaren lehenengo fasea ipiniko dabe martxan urri lehenengoaren 14an.

Ager Barragan

Hain zuzen be, Bizi Igorre Lagunkoia ekimenaren ibilbide luzean ardura nagusietako bat gura bako bakardade egoeran egon leitekezan personena izan da eta aspaldi jaso eban ekimenak holango egoeren prebentzinorako aisialdi zentro baten sorreraren proposamena. Horregaitik, ekimenaren harmagarren urteurrenean ipiniko da martxan Biziro alkargunearen pilotajea.

Biziro alkargunea herri-tar guztientzako zabalik egongo dan topagunea izango da, bereziki persona nagusiei zuzendutakoa. Bizitza aktiboaz gozatuteko, harreman barriak sortuteko eta herri-ko bizimodu partekatuteko balio izango dauan espazioa izango da. Bizi Batzordeak BEGITURI adierazo deutso, espazio barri hau alkar entzuteko, berba egiteko, emoteko eta jasote-ko gunea izango dala; bertan taldean edo bakarka egote-ko, jardueretan parte hartute-ko edo, beste barik, bertara hurreratu eta espazioaz gozatute-ko aukerea

eukiko dabe herri-tar guztiek. Aitatu moduan urri lehenengoaren 14an hasita, sei astez burutuko da pilotajea. Espazioan dinamizatzaile bat egongo da eta bertan ikastaro, tailer eta jarduera desbardinak antolatuko dira herri-ko eragile desbardinakaz alkarlanean, eta gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen dauan Etxetic eta Gaituz zerbitzuak be espazio honetan emongo dabez astean bitan.

Biziro alkargunearen irekieragaz batera Bizi Igorre Lagunkoia ekimenaren 10 urte-ko ibilbideari be aitortza egin gura deusie eta horregaitik irekiera-ospakizun jaia antolatu dabe urri lehenengoaren 16an, eguaztena, 18:00etan, Elexalde kalearen 10. zenbakian kokatuta dagoan espazioan. Ospakizunean espazio barria ezetute-ko aukerea egongo da eta bertan, Biziroren funtzionamentua aurkeztu, ekimenaren atzen hamar urteetako ibilbidea gogoratu eta etorkizunari begira herri mailan Bizi Igorre Lagunkoia ekimenak daukazan erronkak eta ilusi-noak partekatuko dira.

IGORRE

Arratia Motor Taldeak XXVI. motorren kontzentrazinoa egingo dau hilaren 5ean

Ager Barragan

Arratia Motor Taldeak motorzaleen XXVI. kontzentrazinoa antolatu dau urri lehenengoaren 5erako Igorreko Garbeko aparkaleku inguruan. Goizean hasi eta iluntzera arte, motorren ibilbidea, bazkaria, zuzeneko musikea eta sarien zozketea egingo dira.

Izen-emotea 10:00etan za-

balduko dabe eta parte hartzeak 20 euroko prezioa izango dau. Motorzaleak 11:30ean abiatuko dira ibilbidea egitera eta, bueltan, 15:00etan, bazkaria, kafea eta txupittoa izango dabez.

Arrastiko egitarauari jagokonez, Los Vecinos del 5º taldeak joko dau 17:00etan. Kontzentrazinoari amaierea emoteko, 18:00etan hainbat sari zozke-



tatuko dabez parte-hartzaileen artean.



ARRATIA

Areatzak, Bediak, Dimak eta Lemoak udal ikastaroen eskaintza zabala prestatu dabe 26-27 ikasturterako



Areatza, Bedia, Dima eta Lemoako udalek 2026-2027 kursorako ikastaro eta tailerren eskaintzea aurkeztu dabe. Kirola eta osasuna lantzeko proposamenak dira nagusi, baina eskulanak, hizkuntzak, teknologia eta sormena landuteko aukerak be badagoz.

Erredakzinoa

Areatzan, udal ikastaroetan izena hilaren 16ra arte emon ahal izango da, udaletxean, 08:00retatik 15:00etara, edo labur.eus/ikastaroak26-27 estekan. Eskulanak, Crossfit, Zumba, Spinning, Pilates, 62 urtetik gorakoen tzako Mantenimendu gimnasia, Puntua eta kakorratza, Euskal dantzak, Ehoziri lanak, Joskintza, Luzaketak eta Yoga eskainiko dira. Gazte eta umeentzako aukera bi be egongo dira: 12 eta 18 urte bitartekoentzako Dantza modernoa eta 7 eta 12 urte bitartekoentzako Xakea. Taldea oso tzeko 10 lagunek emon behar dabe izena eta Areatzan errol datutakoek lehentasuna eukiko dabe. Beharrezkoa baino jente gehiagok izena emon ezker o zozketea egingo da.

Bedian antolatutako ikastaroetan izena emoteko epea urri lehenengoaren 7tik 18ra egongo da zabalik. Inskripzinoak Infogunean egin beharko dira, 16:30etik 19:30era. Eskaintzeak Yoga, Pilates, Korroa, Euskal dantzak, Jauziri dantza taldea, Euskera ikasteko ikastaroa, Marrazketa, Gimnasia erritmikoa, Memoria kognitiboa, Batzenkido eta Saltsa/merenge jantzak hartzean ditu. Ikastaro gehienak urri bigarreanean hasi eta 2027ko maiatzaren amaiera arte luzatuko dira.

Zemendiaren 17an eta 19an, adinekoentzako Digitalizazio irisgarria dobako ikastaroa be eskainiko da. Gainera, 60 urtetik gorakoek taxi-zerbitzua erabili ahal izango dabe yoga, pilates eta memoria kognitiboa saioetara joateko.

Epe berean, 12 eta 17 urte bitarteko gazteek Gaztegunean izena emoteko aukerea izango dabe. Ikastaro bakotxa aurrea eroateko gitxieneko taldea osotu beharko da.

Diman, hamasei urtetik gorakoentzako hamar talde eskainiko dira: goizeko eta arrastiko Pilates, Yoga, Zumba, Entrenamentu funtzionala, Andrazkoentzako indarrezko ikastaroa, Luzaketak, Eskulanak eta Mantenimenduko gimnasia. Jarduerak Elexalde geletan, eskoletan eta frontoian egingo dira. Urri lehenengoaren 4ra arte emon ahal izango da izena, 94 631 57 25 telefonora deituta, 685 759 997 zenbakira WhatsApp mezua bidalita edo kultura.dima@bizkaia.org helbidera idatzita. Taldeak osotzeko gitxienez zortzi lagunek emon beharko dabe izena eta hamabi baino gehiago apuntau ezker o, zozketea egingo da; Diman errol datutakoek lehentasuna izango dabe. Klaseak urri bigarreanean hasiko dira.

Lemoako Udalak, barriz, adin eta interes guztietarako hama-

zazpi ikastaro eta tailer prestatu ditu: Eskulanak, Informatika, Mugikor bidezko argazkigintza, Bizitzak josten, alkartzen duten puntadak, Xakea haurtzar oan, Euskara-eskolak, Euskara merkatarientzat, A1 prestatzeko ikastaroa, Euskarazko doako praktika saioak (Berbalagun), Makillaje masterclass, Emozioak: ezagutu, sentitu, adierazi, Maskulinitate berriak, Burua martxan: memoria lantzen, Mundu digital segururantz, Mugimendua eta ongizatea, Bakardadeari aurre egiten: gure hartu-emonak zaintzen eta Sendabelar ikastaroa. Izen-emotea urri lehenengoan zabalduko da, baina ez dago zehaztuta izena emoteko epea.

Lemoan euskerea ikasi edo hobetzeko eskaintza berezia be egongo da. A1etik C2ra arteko mailak eskainiko dira, baita B1, B2, C1 eta C2ko titulu ofizialak prestatzeko aukerea be. Lemoan errol datutakoek % 80ko finantzaketea izango dabe, eta A1 eta A2 mailetan prezio bereziak egongo dira. Horrezaz gainera, merkatariei eta migratzaileei zuzendutako oinarrizko ikastaro malgu eta dobakoak eta euskerea praktikatzeko dobako saioak antolatuko dira Kotxepin Kultur Etxean. Izen-emotea hilaren 30era arte egin ahal da labur.eus/lemoaeskolak2627 estekan.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Eklipseak Arratia, Ubide eta Zeberio ilundu ebazan

Hilebete erdi pasau da, baina oindino gogoan daukagu abuztuaren 12ko arrastia. Eguzki eklipse totalak ilundu eban Euskal Herriko zerua, eta Arratia, Ubide eta Zeberioko herritarrak be fenomeno berezi horren lekuko izan ziran.

Ager Barragan

Areatzan, esaterako, Ilargiaren itzalak Eguzkia guztiz estali eban 20:27 inguruan, eta 36 segundoz egunez zala gaua egin zan. Eklipsearen zati partziala, ostera, 19:32 inguruan hasi eta eguzkia sartu arte luzatu zan.

Ez zan edozelango fenomenoa izan. Peninsulatik osorik ikusi ahal izan zan atzen eguzki eklipsearen ostean 120 urte baino gehiago pasau dira: aurrekoa 1905eko abuztuaren 30ean izan zan. Horregaitik, abuztuaren 12koa belaunaldi

bakotxak behin baino ikusten ez dauan moduko ikuskizuna izan zan.

Eta zerura begira egoteko aukerak ez dira hemen amaituten. Datorren eguzki eklipse osoa 2027ko abuztuaren 2an izango da, baina oingoan Euskal Herrian partziala baino ez da izango. Hurrengo urteetan, 2028ko urtailaren 26an, eklipse anularra be ikusi ahal izango da. Gurean eklipse total bat barriro ikus-teko, ostera, askoz gehiago itxaron beharko da: 2180ra arte hain zuzen be.



Gora Andra Mariak!

Arteako Udalak eta Jai Batzordeak

JAI ZORIONTSUAK

OPA DEUTSUEZ

ARTEA

Merhezi, Ane Han, Alarma Morea eta Malko taldeek animauko dabez Arteako jaietako gauak



Zutik eta Oinutsik erromeria taldeek be joko dabe bariku eta zapatuko gauetan, hurrengo hurrengo.

Ager Barragan

Urri lehenengoaren 7an, 18:00etan txupina bota eta lehertuko da jaia herri jantza eta buruhandiakaz. Ostein, aste oso bateko egitaraua. Kontzertu eta erromeriez gainera, antzerkiak, bertsolariak, herri afari eta bazkaria, taloak, mo-zorroak... eta beste ekintza ugari egongo dira, ume, gazte, heldu eta zaharren gozamenerako.

Bariku gauean, 02:30ean eta 05:00etan, egongo da Arratiako herrietara eta Zornotza, Usansolo eta Galdakaora joateko autobusa.

Urri lehenengoak 7, astelehena
18:00etan, txupinazoa, herri jantzea eta buruhandiak.
18:30ean, Patxi eta konpainia.

Urri lehenengoak 8, martitzena
12:00etan, mezea.

13:00etan, bertsolariak: Onintza Enbeita eta Aitor Etxebarriazarraga.
18:30ean, Troia kale antzerkia.

Urri lehenengoak 9, eguaztena
18:00etan, herri olinpiadak.

Urri lehenengoak 10, eguena
17:00etan, Mus eta Briska Txapelketak.
21:30ean, herri afaria eta ostein Merhezi taldearen kontzertua. Txartelak Izar Zuria eta Herriko Bentan.

Urri lehenengoak 11, barikua
18:00etan, umeentzako antzerkia: Patata Tropikalaren Azken eguzkilorea.
20:00etan, GOTX elektrotxaranga.
21:00etan, taloak.
22:30ean, Alarma Morea taldearen kontzertua.

00:00etan, Zutik taldeagaz erromeria.
02:30ean eta 05:00etan, autobusa etxera bueltetako.

Urri lehenengoak 12, zapatua
11:00etan, umeentzako jolasak.
13:30etik 14:00etara, Tortilla Txapelketea.
14:00etan, herri bazkaria.
20:00etan, Mozorro Desfile Txapelketea, udaletxetik plaza-
ra eta Playback Txapelketea.
22:00etan, Malko taldearen kontzertua.
00:30ean, Oinutsik taldeagaz erromeria.
03:00etan, DJ Galtzagorriyak.
Mozorro gaua: urtarok.

Urri lehenengoak 13, domekea
12:30ean, Desorekatua magia ikuskizuna.
18:30ean, Ane Han-en kontzertua.
20:00etan, txokolatea.

IGORRE

Inbiuk euskerea, kulturea eta herritarren parte-hartzea batuko ditu

Hilaren 19an egingo da Inbiu 2026 Igorren, egun osoko egitarauagaz. Lauburu erronka, herri bazkaria, musikea eta Bizkaiko Ingude Txapelketea egingo dira.

Erredakzinoa

Eguerdiko 12:00etatik 14:00etara, Lauburu erronka: euskara loratu ekimena egingo dabe Lasarte parkean. Herritarrek ginkana komunitario baten parte hartu eta naturako mate-

rialak batuko dabez, gero zazpi metro inguruko lauburu erral-
doi eta bizia alkarlanean sor-
tzeako. Antolatzaileen arabera,
Euskal Herriko lauburu bizirik
handiena egin gura dabe.
15:00etan herri bazkaria
izango da Lasarte parkean eta,

bazkalostean, Eingo taldeak
girotuko dau arrastiko tartea.
Helduen menuak 20 euro balio
dau eta umeenak, 18 euro. Txar-
telak jubiladuenean eta Eguzki
tabernan dagoz salgai.
19:00etan Bizkaiko Ingude
Txapelketa Ofiziala jokatuko da

Lasarte parkean. Ondoren, Man-
gual DJak arituko dira Kubulu
euskaltegiaren aurrean, eta ko-

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

AEK-k zabalik dauka euskera ikastaroetan matrikuletako epea

AEK-k zabalik dauka 2026-2027 ikasturteko euskera ikastaroetan izena emoteko epea. Maila guztietako eskolak eta ikasleen beharrianetara egokitutako hainbat ordutegi eskaintzen ditu.



Erredakzinoa

Euskerea ikasi, maila hobetu edo titulu ofizialen bat lortu gura dabenek A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailetakoko ikastaroetan matrikulau ahal izango dira. Ikastaroek Eusko Jaurlaritza-HABEren eta eskualdeko udalen dirulaguntzea daukie. Arratiako herritarrek Igorreko Elexalde kaleko 10. zenbakian dagoan euskaltegian emon ahal izango dabe izena. Informazio gehiago jasoteko, 94

631 56 57 edo 607 632 916 telefonoetara deitu edota arratia@aek.eus helbidera idatzi daiteke.
Zeberioko herritarrek, barriz, Arrigorriagako AEKn egin beharko dabe matrikulea. Izapidea aurrez aurre egin daiteke, baita online be, AEKren webgunean edo arrigorriaga@aek.eus helbidean. Argibide gehiago jasoteko edo Udalaren dirulaguntzen barri izateko, 94 671 40 76 edo 663 040 035 telefonora deitu.



Lasarte parkean. Ondoren, Man-
gual DJak arituko dira Kubulu
euskaltegiaren aurrean, eta ko-

paua be egongo da. Euria egiten
badau, Lasarte parkean egite-
koak frontoira eroango dabez.

ERMITEN MENDI MARTXEA

Zeanurin, ermitarik ermita, auzunerik auzune

Urri lehenengoaren 5ean, zapatuan, izango da Ermiten XXXVII. Mendi Martxea eta aurtengoak, hileetan zehar garatu dan proiektu berezi bat dakar esku artean.

Ager Barragan/Jon Urutxurtu

Urri lehenengoaren 5erako, zapatua, antolatu dau Joko Alai alkarteak Zeanuriko Ermiten XXXVII. Mendi Martxea. Ez dira gitxi herri horretan han-hemenka azaltzen diran ermita edota eleizak, guztira hogei. Dana dala, ibilbide osoa egiten dabenek hemeretziaren ingurutik igaroko dira, Igiriñako (Gorbeia) Edurretako Amarena, kanpoan geratzen da-ta. Zeanurin parrokia bi eta hamazortzi baseleiza topau daitekez udalerria osotzen daben zazpi kofradian sakabanatuta. Eta beste elementu batzukaz batera, baseleizak auzuneei nortasuna emoten deutseen ardatzetako bat dira.

Aurten, barrikuntza legez, herriko plazan eta ermita bako-txean Zeanuriko ermiten on-darea ardatz daukan erakusketea egongo da ikusgai, ermiten barrukaldeko zein kanpokaldeko —aireko irudiak— irudiakaz, baseleiza bakotxaren ezaugarrien barri emonaz. Ermitetan gordeten diran elementu historiko eta esanguratsu batzuk be ikusgai egongo dira: dokumen-tuak, monolitoak... Erakusketa hau Juanma Nogales Zeanuriko bizilagunaren ekimen eta lana da, eta Udalaren eta Joko Alai alkartearen laguntzeagaz antolatu dau.

Ibilbide osoa 35 kilometrokoa da, baina antolatzaileek beste ibilbide alternatibo bi diseinatu-tue: bata laburra, 15 kilo-metrokoa eta bestea ertaina, 28koa.

35 kilometroko ibilbidea

Ondare erlijiosoa bisitatu eta ezetu, aldi berean natureagaz hartu-emonetan ipinteko aukera parebakoa eskaintzen dabe ibilbidea osotzen daben hogeta hamabost kilometroek. Urtekerea herriko plazan izango da, eguneko lehen argiak kuku-rruku egiteaz batera, 07:30ean. Atera eta bost bat minutu geroago Eleizondo auzunean sartuko da ibilbidea, lehenengo, Piedadea izenaz ezetuten dan baseleizea topauz; oindino konserbetan dan Erdi Aroko galtzadearen tarte txikia zapal-duz, eta ermitearen eleizpetik

igaroz, atoan, Andra Mari parrokiagaz topo egiten da. Eleizea harro azaltzen da, bere kokaera estrategikotik herrigunea kontrolatzen dauala. Barroko estiloko erretaula ederra gordeten dau bere barruan Andra Mari-k. Ezin da aitatu barik itxi parrokiaren eta Piedadearen artean altxatzen dan altzairuzko kurutzea, Gorbeia-ko kurutzearen mendeurrena gogoratzeko 2001ean Nestor Basterretxeak egindakoa.

Eleizondotik ibilbidea As-terria kofradiako lurretan sartzean da, Santi Kurutz baseleizearen bila; Zeanuriko mugen barruan egon arren, eleizak areatzatarra da. Goranzko joerari ekinaz, Ogarabeiti auzotik Ogaragoiti auzora igoz, San Andresera heltzean gara. Bideari ekinaz, eta Urrekoatxa (582 m) mendia ezkerrean itxiz, Zeanuriren eta Dimaren arteko mugarako norabidea hartzean da San Blasera heltzeako. Mugarrietara begiratzuz ermitea Dima partean kokatzen bada be, lurra Zeanuriko Ibarguen kofradiaren jaubetzakoa da. San Blasetik aurrera bideak behe-
rantz egiten dau, eta arnasea hartze-
ako aukerea emoten dau, Altxusta kofradiako lurretan sartzera deroan aldapatxoari barriro heldu baino lehen. Altxustan ermita bi dagoz zain: San Migel eta Santa Lutzi. Deigarria zan San Migeleko kanpaietako baten irakurri ahal zan: “*En el ámbito donde resuene mi voz no triunfarán los liberales*”. Dirudienez, intera baten karlistak edo konserbadoreak izan ziran jaun eta jaube paraje honeetan. Dana dala, zoritxarrez, ezin izango da irakurri idazkun hori kanpaia lapurtu egin dabe-ta.

240-N zeharkatuz, Undurraga auzunerantza jarraitzen da Bilbo urez hornitzen dauan urtegi bukolikoa eskoiean itxita. Arratia ibai zeharkatu ostean, San Pedrori kuku bat egin eta Ipiña-bururantz egiten dau bideak, bertan aurkitzen diran eleizea eta baseleiza bien bila: Santiago, San Adrian eta Santa Ageda.

Bigarren parrokia

Santiago Zeanuriko bigarren parrokia da. Bertako bateo agiriak —Derion, Bizkaiko Elei-



Ondare erlijiosoa bisitatu eta ezetu, aldi berean natureagaz hartu-emonetan ipinteko aukera parebakoa eskaintzen dabe ibilbidea osotzen daben hogeta hamabost kilometroek



zaren Historia Artxiboan gordeten diranak— Bizkaiko zaharrenak dira, 1501ekoak hain zuzen be. Santiagotik Santa Agedara eta jarraian Atxondo igaro eta Muñegi aldetik aurrera eginaz, estartarik estarta, Zanburuko (789 m) hatxaren itzalpean jarraitzen da, Altxuako San Juanera ailegetako. Ermita hau XV. mendearen amaierakoa da; hemen egindako indusketak arkeologikoetan epigrafe funerario —baseleizearen barruan gordeten da— aurkitu zan honako idazki honegaz: *Zeiani c/m suo ger/mani. Laun/ti ln cor/pore suo/ +S+N ob/it (...)/O(...)* ER/(...)DCC. Zeanuri herriaren izanari buruzko idatzizko lehen aitemenetako bat da; gainera, kontuan izan behar da gaur egun be zeanuriztarrek, aho-hizkuntzan, Zeani izenaz deitzean deusiela euren herriari.

Altxua kofradiatik Otzerin-mendi kofradiara zuzentzen dan pistatik 20 bat minutu ibili ostean, San Justo azaltzen da haresti zoragarri baten erdian.

Otzerinmenditik plazara

San Justoko harestia zeharkatuz eta behe-rantz pare bat kilometro ibili eta gero, San

Lontzo azaltzen da. Tradizinoaren arabera, Gorbeia-
ren bes-taldean dagoan Orozko herri-
tik ekarten ei ebezen gorpuak
hemen lurperatzeko; gertaera
honen lekuko Pagoniotzetako
andabidea toponimoa da. Erre-
katxoagaz topau arte aurbehe-
ran jarraitzen da eta errekatxo-
a zeharkatzeagaz batera Uribe
kofradian sartzean gara; hiru
baseleiza aurkitzen dira bertan:
San Migel, San Urban eta San
Pedro, hirugarren hau Axpeko
jauregiaren jaubetza. Jadanik
ibilbidea azken txanpan sar-
tzean da, eta ibiltariak txiri-txiri
zuzenduko dira herriko plazan
itxaroten eukiko daben hel-
mugearen bila. Plazan bertan,
San Isidro eta bere aurrez aurre
dagoan San Antonio ermiten
artetik igaro bezain laster hel-
mugea azaltzen da.

Amaitzerakoan, hogeta ha-
mabost kilometro eroango da-
bez oinetan parte-hartzaileek,
baina ziur ziteari erantzuteak
mereziko deusiela, ondare er-
lijiosoa ezetuteaz batera uda
udagoien bihurtzen dabilen
sasoi honetan natureak erakus-
ten dauan koloreen sinfoniaz
gozatzeko aukera ezin hobea
eskainiko deusiela-ko Zeanu-
riko Ermiten XXXVII. Mendi
Martxeak.

Ermita proiektua

Lehen aitatu moduan, barrikuntza handia dakar aurtengo ermiten mendi martxeak. Zeanuriko bizilaguna eta argazkilaria dan Juanma Nogalesek, Udalaren eta Joko Alai Kirol Elkartearen laguntzeagaz, atzen hilebeteetan zehar, ermita guztien argazki eta bideoak egin ditu.

Nogalesek, ez bakarrik ermitetik, baizik eta, Zeanuriko herriaren balore arkitektoniko eta kultural guztia berbiztu eta honeri merezi dauan balioa emon guran, herritarren laguntzeagaz guztiz modu boluntarioan egin dan proiektu hau proposatu eutson Udalari. Nogalesek eta Zeanuriko alkate dan Nahia Urrutxuak BEGITURI adierazo deutsie, proiektu honen ermitetik daukien balioa herritarrei bakarrik ez, martxara

edo ermitetara hurbiltzen dan edonori erakusteko helburua daukala eta gerora, Zeanuriko beste ondareagaz (iturriak, zubiak, errota...) bardina egiteko abiapuntua dala.

Atzenean, Nogalesek adierazo moduan, ermitak gure bizitza osoan zehar hor egon diran eraikinak dira eta askotan inork igarten ez dauzan eta balore, bai historiko eta bai kultural, oso handia daukiezan historia eta materialak gordetan dabezala eraikin honeek. Horregaitik, Nogalesek berak ateratako argazki eta bideoei, Gontzal Mendibil musikari zeanuriztarraren kanta batzuk eta autore-eskubide libreak daukiezan beste kanta batzuk ipinita osotu dabe proiektua.

Ermita proiektuak zati bi izango ditu, bata herrian eta bestea ermita bakotxean. Herriko partean argazki eta infor-

mazinoz beteta dagozan panelak ipiniko ditue plazan eta ermiten historiari buruzko hamaseigarren mendeko idatzien zatien kopiak udaletxeko Pleno Aretoan. Urrutxua alkateak BEGITURI adierazo deutsonez, astegoi- osoan zehar egongo da erakusketea ikusgai, udaletxe barrukoa hilaren 4tik aurrera eta plazakoa hilaren 5etik aurrera. Martxearen astegoi- enaz aparte, beste astebet- ez itxiko dabe erakusketea herrian, eskolako umeek be euren irakasleak ikusi ahal izateko.

Ermitetan barriz, plazan egongo diran panelen kopia txikiagoak jarriko dabez. Honek bai, betirako bertan geratuko diranak.

Udalak argi adierazo eban, eurentzako oso polita dala herri- ritar batek herriarentzat hola-ngo proiektuak egitea eta oso

pozik dagozala proiektu honen ahal izateaz eta baita Joko Alai- garapenean Udalak lagundu ren parte-hartzeagaz.

Ibilaldiari buruzko zehetasunak

- * Eguna: urri lehenengoan 5a, zapatua.
- * Izen-emotea: 07:00retatik aurrera, herriko plazan. Joko Alaiko bazkideek: nagusiek 7 euro. Umeek, 14 urtera arte 4 euro. Joko Alaiko bazkide ez diranek: nagusiek 10 euro. Umeek, 14 urtera arte 6 euro.
- * Urtekerea: 07:30ean, herriko plazatik.
- * Ibilbide luzeak: 35 kilometro inguru.
* Ibilbide ertainak: 28 kilometro inguru.
* Ibilbide laburrak: 15 kilometro inguru.
- * Jan-edana: hiru tokitan banatuko da: San Blasen, Ipiñaburun eta Altzuan.
- * Erakusketea: egun osoan zehar Ermita proiektua izeneko erakusketea ikusgai izango da plazan eta baseleiza bakotxean.



- LAN PUBLIKOAK
- UR ETA SANEAMENTU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

 94 631 72 57

 ekin@ekinsl.eus

 Igorre (Bizkaia)



BOLA-JOKOA

Joseba Gortazar, Maule Gortazar eta
Telmo Intxaurbe nagusi izan ziran
Zeanuriko **bola txapelketetan**

Joseba Gortazar txapelketa nagusian, Maule Gortazar andrazkoenean eta
Telmo Intxaurbe umeenean nagusitu ziran 2026ko bola txapelketetan.



Jon Etxebarria 2. sailkatua, Joseba Gortazar txapelduna eta Arrate Goyoaga 3. sailkatua, Nahia Urrutxua alkateagaz, sariak hartuta.

Jon Urutxurtu

Finalak San Lontzon jokatu ziran, abuztuaren 10ean eta 11n: San Lontzo egunean, goizean umeen eta andrazkoen txapelketak eta San Lontzo bigarrenen, arrastian, Zeanuriko Txapelketa Nagusia.

Maila nagusian aurtengo udan auzuneetan jokatu diran bost txapelketetako —Altzuakoa, Undurragakoa, Ipiñaburukoa, San Justokoa eta San Lontzo bertakoa— lehen hiru sailkatuak hartu eben parte. Finalera heldu ziran bolarien artean andrazko bi be baegozan: Aitana eta Arrate Goyoaga ahiztak. Joseba Gortazarrek jantzi eban herri mailako txapela; bigarren eta hirugarren tokietan Jon Etxebarria eta Arrate Goyoaga



Joseba Gortazar, aurtengo txapelduna, alkateak emondako sariagaz.

sailkatu ziran. Txapelketako bolaririk be-teranoena 89 urteko Esteban Ozerinjauregi altzuarra izan zan eta gazteena 12 urteko Aiheko Martin. Aitagarria da bola-jokoa barru-barrutik bizi dauan Esteban Ozerinjauregiren kasua: 89 urtegaz finalerako sailkatu zan eta urtero hutsik egin barik auzune guztietako txapelketetan parte hartzean dau ilusino handiagaz, umetatik bizi izan dauan jokoa da-ta. Adinagaz indarra galdu badau be, goi mailako teknikea dauka Estebanek.

Maule Gortazar andrazkoetan eta Telmo Intxaurbe umeetan

Andrazkoetan 12 andrazkok hartu eben parte eta irabazlea 13 urteko Maule Gortazar uribeztarra izan zan.

Umeei jagokenez, 15 umek bota eben bolea eta txapelduna 11 urteko Telmo Intxaurbe asterriaztarra izan zan, bigarren eta hirugarren tokietan Aiheko Martín eta Izei Ikaza saikatu ziran.

Zeanuriko bolarien hurrengo hitzordua Altzustan izango da, urri bigarrenaren 3an, San Migel jaietako egitarauaren barruan. Kofradien Arteko Taldekako Txapelketea jokatu da: udalerria osotzen daben 7 kofradietako ordezkariak hartuko dabe parte, talde bakotxa lau bolarik osotuta.

AUTOAK

Autoen IV. Dimako Igoera urri
lehenengoaren 5ean izango da

Ager Barragan

Urri lehenengoaren 5ean, zapa-tua, IV. Dimako Igoera egingo da, Euskal Mendiko eta Erregularitateko Txapelketetarako puntuagarria.

Probea BI-2543 errepidean egingo da, Ugaranatik Otxandiora bidean, eta 7,5 kilometroko ibilbidea izango dau.

Eguna goizean hasiko da, 08:15etik aurrera, egiaztapen

administratibo eta teknikoakaz. 12:15ean, parte-hartzaileak karabanan abiatuko dira laguntza-parkera, eta 13:00etan hasiko dira entrenamentu libreak. Ostean, entrenamentu ofizialak eta lasterketako txanda ofizial biak egingo dira. Emaizak 20:00etan emongo dira jakitera, udaletxeko plazan.

Guztira, 70 ibilgailura arte onartu ahal izango dira, eta abiadurako zein Regularidad

Sport modalidadeko parte-hartzaileak izango dira.



ORIENTAZINOA

Orientazino proba egingo
dabe Diman hile amaieran

Hilaren 26an, Diman (Zumeltzan) hasi eta
Urkiolako Parke Naturalean zehar murgilduko
dan orientazino proba antolatu dau COBI
orientazino taldeak.

Ager Barragan

II. Urkiola-Eskuagatx Rogai-neak hiru aukera eukiko ditu: bederatzi ordukoa, lau ordukoa eta ordu bikoa. Proba luzea 10:00etan hasi eta 19:00etan amaituko da; ostean, afaria eta sari-banaketea egingo dira Otxandioko frontoian. Familia kategoriako lau orduko proba 11:00etatik 15:00etara izango da, eta gero bazkaria eta sari-banaketea egingo dabe. Probarik laburrena 11:00etan hasi eta 13:30ean amaituko da, eta partaideek jan-edana eukiko dabe

Dimako portuko helmugan. Proba IbeRogaine Ligakoa da eta Dima, Mañaria eta Abadiño hartuten dauzan eremuan jokatuko da. Edozein orientatzailek parte hartu ahal dau, baina Ligako sailkapen orokorrerako bederatzi orduko proba ofizialeko emaitzak baino ez dira kontuan hartuko. Izena emoteko epea urri lehenengoaren 21ean amaituko da. Bederatzi eta lau orduko probetarako, SICOren webgunean emon behar da izena; ordu biko probarako, barriz, Deporticketen.



MENDI MARTXEA

Zabalik dago hilaren
12ko Ubideko Biran izena
emoteko epea

Erredakzinoa

Mendi eta natura zaleek hitzordua daukie urri lehenengoaren 12an Ubiden, egun horretan egingo da-ta Ubideko Bira. Izen-emotea zabalik dago hilaren 10era arte, internet bidez. Amexier mendi taldeak ibilbide bi prestatu ditu, parte-hartzaile bakotxak bere mailara ondoen egokitzen dana aukeratu dagian. Ibilbide luzeak, 20 kilometro eta 786 metroko desnibel positiboa dauka eta laburrak 12 kilometro eta 469 metroko desnibel positiboa.

Ibilaldia 09:00etan abiatuko da. Aldez aurretik izena emotek 10 euroko prezioa dauka, eta labur.eus/ubidekobira26



helbidean egin behar da. Egunean bertan be egongo da izena emoteko aukerea, 15 euroren truke.

PELOTEA

Amaia Aldaik Plazandreak torneoko txapela jantzi eban abuztuan

Ager Barragan

Abuztuaren 10ean, Aldaik Plazandreak Txapelketako finala jokatu eta irabazi eban Bilboko Esperantza frontoian, Miriam Arrillagagaz batera. Bikoteak 22-12 irabazi eutsen Laia Salsamendi eta Arrate Bergarari, partidua hasikeratik kontrolpean eukita. Atsedenal-

dira 9-3ko abantailagaz heldu ziran eta bigarren zatian aldea handitu eban. Pelotari dimoztarra oso pozik agertu zan txapelketan egin-dako lanagaz, partidu guztiak irabazi ebezelako, eta finalean Arrillagagaz batera aurretik “planifikauta” euki eban es-trategia aurrera eroatea lortu ebelako.



PELOTEA

Uda gazi-gozoa Ekhi Ziarrustarentzat

Donapaleuko trinketeko trofeoa irabazi ostean, Itsasuko trofeoko finalean dimoztarrak ezin izan eban txapela jantzi eta lesino bat dala-ta, Kanboko torneoko finala eta Behauzeko torneo -abuztuko atzena- alde batera itxi behar izan ebazan.

Ager Barragan

Partiduan kontrola eroan os-tean Donapaleuko trofeoa Saint Paulegaz batera 40-31 irabazi eban Ziarrustak Gurruchaga eta Ugarteren kontra jokatu-tako finalean, baina beste tor-neo guztietan suerte txarragoa euki dau pelotari dimoztarrak. Kanboko trofeoko finalera be heldu zan Ziarrusta, baina fi-nalaurreako irabazi eta hone-tan lepoko “molestiakaz” hasi ostean, finala alde batera itxi behar izan eban dimoztarrak, bere gorputzaren onerako. Abuztuaren bigarren erdikal-dean beste torneo bi jokatu behar ebazan Ziarrustak. Itsa-suko torneo eta Behauzeko torneo. Lehenengoan, Inhar Ugartegaz finalera heldu os-tean, barriro hasi jakon lepoko

mina eta ezin izan eban parti-du ona egin. Ondorioz, 40 eta 15 galdu eban Ziarrusta eta Ugartek osotutako bikoteak. Bigarrena, Behauzeko torneo, abuztuko atzen astegoienean jokatu behar eban baina me-dikuagaz errebisinoa eta pro-bak egin ostean, honek, pelota-ri dimoztarrari zuntz-hausturea eukala konfirmatu eutsan eta horren ondorioz ezingo ebala atzen torneo hori jokatu.



FUTBOLA

Arratia Ak Bigarren Federazinoko ibilbidea hasiko dau hilaren 6an etxean

Andrazkoen Arratia Ak hilaren 6an ekingo deutso ligeari Bigarren Federazinoan. Arratiarrek Galiziako Victoria CF hartuko dabe 11:30ean Urbietan, maila barriko lehenengo jardunaldian.

Erredakzinoa

Igorreko taldearen liga ha-sikerea Euskal Herria Kopako finalagaz batera etorriko da. Arratiak C1 moltsoko lehenen-go postua lortu dau, Alaves Bren kontra bina bardindu eta Artizarrak taldeari 2-0 irabazi ostean. Arratiak eta Alaves Bk launa puntu batu dabez, baina arratiarrek golen aldeari esker sailkatu dira lehenengo. Fina-lean C2 multzoko txapelduna, Mulier, izango dabe aurkari. Kopako finala eta Bigarren Fe-derazinoko lehenengo jardunaldia astegoienean berean diranez, Mulie-rren kontrako partidua Arratia A eta Arratia Bko jokalariek osotu-tako talde batek jokatu dau hila-ren 5ean, 13:30ean Urbietan.

Arratia sasoian helduko da liga hasikera historikora aurre-denporaldian hainbat partidu jokatu ostean. Euskal Herria Kopan egindako ibilbideari Laudioko San Roke Torneoan, abuztuaren 29an, lortutako ga-raipen biak gehitu behar jakoz:

0-1 Hernaniren kontra eta 1-0 Elorrioren kontra. Hurrengo egunean prestaketa lanak fin-tzeko maila berean dagoan Bizkerre A taldearen kontra jokatu eban Urbietan eta parti-du burukatu baten ostean 1-2 galdu eban arratiarrek.



MENDIA

Areatzako Mendi Martxearen XIII. edizinoa egingo da urri bigarrenaren 3an

Urri bigarrenaren 3an, zapatuz, mendi martxearen hamahirugarren edizinoa ospatuko dabe Areatzan eta parte hartzeako izena emoteko epea hilaren 20ra arte dago zabalik.



Ager Barragan

Aurten be, egunero ikusten edo erabilten ez diran bideak herritarrei erakusteko eta aldi bardinean honeek (antxinako bideak) berreskuratu eta barriro erabilgarri ipinteko helburua-gaz, Areatzako XIII. Mendi Mar-txea egingo da urri bigarrenaren

lehenengo zapatuan. Lamino-kide eta antolatzaileetakoa dan Julen Ipiñak BEGITUN adierazo dau mendi martxeagaz batera Areatzako mendi eta basoak garbirik eta barriro bizitasunez eukitea gura dabela eta holan ondare naturala berreskuratu. Iñigo Iturbe eta Ibai Milikua izaten dira normalean ibilbideen

diseinuen kargu egoten diran-nak, Ipiñaren esanetan, eurak diralako herrian mendiak hobeto ezetuten dabezan personak eta oin dala urte bitik ona hiru ibilbi-de prestetan dabez: 12, 19 eta 25 kilometroak. Aurtengo ibilbi-de txikiak berezitasun bat be badauka. Normalean plazan hasi eta amaituten zan ibilbide hau, baina edizino honetan ibilbide laburra egiten dabenek be, er-taina egiten dabenen moduan, Bikozganera igongo dabe au-tobuses eta bertan hasiko dabe euren 12 kilometroko ibilbidea. Holan, Areatzak Gorbeaiako Par-ke Naturelean daukazan txoko politenak ezetuko ditue. Izen-emotea hilaren 20ra arte edo 500 persona apantau arte egongo da zabalik rockthes-port.com webgunean. Adinaren arabera, 10, 15 edo 20 euroko prezioa daukie inskripzinoek.

● ANTZEZLANAK

Antzerki bi ikusteko aukerea egongo da Arteako jaietan



Troia kale-antzerkia.

Ager Barragan

Amancay Gaztañaga, Iraia Elias eta Erika Olaizolak osotutako Kamikaz Kolektiboa taldearen kale-antzerki parte-hartzailea da *Troia*. Urri lehenengoaren 8an, 18:30ean, Ar-

teako Jaien egitarauaren barruan egingo dan ikuskizun honetan, hurreratzen diran ikusleak zutik eta zuzenean parte hartuko dabe.

Holan dino sinopsiak: Herrian agertu dan objektu misteriotso bat arriskutsua izan leitekeelakoan,

hiru superheroi deitu dabez herriko bizilagunak salbetako. Euren podere guztiak erabiliko dabez misinoa aurrera eroateko, baina herritarren laguntza guztia beharko dabe honetan onik aterateko. Objektuaren gainean dagoan tensinoa geroz eta handiagoa da eta edozein momentutan tensino horrek eztanda egin ahal dau...

Beste alde batetik, urri lehenengoaren 11n, arrastiko 18:00etan, umeentzako Patata Tropikala Antzerki Laborategiaren *Azken eguzkilorea* ikuskizunaren emonaldia egongo da. Abentura barri eta dibertigarri honetan txontxongiloak, maskarak, antzerkia, umorea eta irudimena jantzan ikusteko aukerea eukiko dabe Arteako plazara hurreratzen diranek.

Honetan holan dino sinopsiak: Ongi Etorri baserriko Kattalin herrira jatsi eta bere lagun guztiak desagertu dirala ohartuko da. Beraz, Mari Jainkosari galdetzerabiatuko da, nahiz-ta basoan betirako harrapatuta geratu ahal dala jakin. Hemendik aurrera, Kattalin, mitologian zehar murgilduko da haziko dan Azken eguzkilorea topetako. Bertan, Mari Jainkosa, Basajaun, Tartalo, galtzagorriak eta jentilak ezetuko ditu, baita Gaueko bildurgarria be.

ten hitzordua, 11:30ean Obako plazan.
14:30ean, auzo bazkaria.
17:00etan, Briska Txapelketea.
18:00etan, Igel Txapelketea.
19:00etan, txokolatea.

San Antolin Lemoan
Urri lehenengoak 2, eguaztena
12:00etan, mezea San Antolinen. Ostein, barauskarria Eingo taldeak girotuta.
13:00etan, azkolarien erakustaldia Mendieta Herri Kirol taldearen eskutik.
14:00etan, Baba Lehiaketako lapikoen aurkezpena.
16:15ean, erromeria Joxe Mendiabalegaz.
18:15ean, petanka Lemoatx erara.

Andra Mari jaiak Lemoan
Urri lehenengoak 8, martitzena
12:00etan, meza nagusia Andra Mari eleizan. Ostein, Durundi Barri jantza taldearen emonaldia.
19:00etan, *Atsoak dantz*an kale-antzerkia Kulturguneko plazan.

Urri lehenengoak 12, zapatua
13:00etan, poteo musikatua Arratiako Musika Eskolako trikitilariakz Herraduratik.
15:00etan, bertso-bazkaria Kulturguneko plazan (euria bada, eskolako aterpean). Bertsolariak: Aissa Intxausti eta Igor Elortza.
17:30ean, Andra Mari Futbol Txapelketea Arlonagusian Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatuta.
19:30ean, poteo musikatua Arlonagusia futbol zelaitik hasita.

● PAILAZOAK

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore beste urte batez egongo dira Zeberion

Ager Barragan

Urri lehenengoaren 2an, jaiei txupinazoagaz hasikera ofiziala emon baino egun bat lehenago, Euskal Herriko pailazorik ezagunenak beste urte batez egongo dira Zeberioiko plazan, jaietan herriko txiki zein nagusienak euren *Zerua lapurtu dute* ikuskizun barriagaz barrezka ipini eta honeek sandoniak ahalik eta alaien hasi

dagiezan.
Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore arduratuta dagoz zeruan izarrik ikusten ez dabelako. "Zer gertatu da zeruagaz? Lapurtu egin deuskue?" Birtxi farozainaren laguntzeagaz urdin infinitura abiatuko dira izarren bila... unibersoaren sekretuak ezetutera, urrunera begiratzuz barrura begiratzeko! "Etorri gura?", dino ikuskizun barri honen sinopsiak.



● JAIK

Jaiak Lemoan eta Diman

Lemoatx azpian dagoan San Antolin ermiteak eta

Andra Mari eleizeak euren izenen jaiak ospatuko ditue urri lehenengoaren 2an eta 8an hurrengo hurrengo.

Dimako Oba auzoan sailduniak ospatuko dabez.

Ager Barragan

Urtero lez, autobusak egongo dira San Antolin egunean Lemoatxara igoteko 10:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Eguerdian, kuadrillak giro ederrean, baba-jana egingo dabe eta erromeria egongo da bazkalostean.

Elizondon barriz, Andra Mari jaiak ospatuko ditue eta horretarako egun biko jai egitaraua prestatu dabe: martitzenean, hilak 8, Andra Mari egunean, eta zapatuan, hilaren 12an, izango dira ospakizunak. Martitzenean, Durundi Barri jantza taldeak emonaldia eskainiko dau, beste gauza batzuen artean eta zapatuan, hilak 12, bertso bazkaria egongo da Aissa Intxausti eta Igor Elortza bertsolariakz.

Obako Sailduni jaiak osteraurri lehenengoaren 2an hasi eta hilaren 6ra arte luzatuko dira. Lau egunetan zehar, musikea, gastro-

nomia, Yogurinha Borova, kirola eta hainbat txapelketa izango dira auzotar eta bisitarientzat.

Sailduniak Oban
Urri lehenengoak 2, eguaztena
18:00etan, txupina. Ostein, trikitaliak eta kopaua.

Urri lehenengoak 4, barikua
20:00etan, Tortilla Txapelketea, ume eta helduen kategorietan. Izen-emotea 19:00etan.

Urri lehenengoak 5, zapatua
19:00etan, Yogurinha Borovaren *Bingo musikatua*. Mozorrotuta joateko deia egin dabe; gaia: bingoa eta musikea. Ostein, txixi-burduntzia.
21:00etan, Bola Txapelketea, ume eta helduen kategorietan. Ostein, Mitxel Play.

Urri lehenengoak 6, domekea
12:00etan, Dimatik Obarako krosa. Nordic Walkingekoen urtekerea, 11:30ean Dimako frontoitik. Atle-

**IPINI
ZURE
IRAGARKIA
BEGITUN**

● 649 979 115 ●

inigoirua@begitu.eus

Euskal Diasporaren Asteak

Argentina eta Arratia arteko loturak estutuko ditu

A large group of people, mostly women in traditional white and blue dresses, posing for a group photo on a stage. A sign in the background reads "VALSA".

Aitzol Salaberria Goñi Olen-
tzeroren Lagunak alkarteko kidea
da. *Transmisioa* dokumentalak
alkarteko kideek 2022an Olen-
tzero eta joaldunakaz Argentina-
ra egindako bidaia jasoten dau.
Euskal etxeetan egindako harrera
eta euskerea eta euskal kulturea
zelan transmitiduten dabezan
erakustez gainera, Macachingo
Euskal Astearen barri emoten
dau. Diasporako kideek euren
nortasuna zelan bizi daben be-
aztertzen dau lanak: euren burua
euskaldun, argentinar edo bietara
sentiduten daben, besteak beste.
Dokumentalaren bidez, ohiturak,
kulturea eta hizkuntzea belau-
naldiz belaualdi transmitidutea-
ren garrantzia nabarmendu gura
dabe. Proiektzinoaren ostean,

Lehenengo ekitaldiko protagonista nagusietako bat Wilson Saliwonczyk izango da. Los Toldoseko egile, poeta eta payadoreak 25 urte baino gehiagoko ibilbidea dauka eta Amerika, Europa eta Afrikako agertoki, jaialdi eta unibersidadeetan jardun dau. Payadea, errimadun bertsoak gitarra-raz bat-batean sortzean oina-

Euskal Diasporaren Eguna urtero ospatuten da urri lehenengoaren 8an, munduan zehar sakabanatuta dagoan euskal komunitadea aitortu, balioan ipini eta haregazko loturak sendotuteko. Horren harira antolatutako astearen helburuen artean dagoz euskal diasporaren ekarpena eta ondarea ezetutera emotea, Arratia nazinoarteko euskal sareagaz konektatea eta euskerea eta euskal kulturea transmisino-tresna moduan indartzea. Era berean,

Migrazinoak estu lotutako herrialde bietako kantutegi herrikoia lantzean dabe gitarra eta perkusinoagaz. Taldearen izenak

Areatzan egingo dan bazkarirako txartelak Aldamin jatetxean dagoz salgai. Plaza kopurua mugatua da.



Gure
ikastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa

herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre
---	--

2 urtatu 19a

● AGENDEA

URRI LEHEN. 1
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

AREATZA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero udaletxean zabalik.

Hilaren 16ra arte emon daiteke izena udaletxean goizeko 08:00retatik 15:00etara edo <https://labur.eus/ikastaroak26-27> estekan, udal ikastaroetan. Ikastaroak: *Eskulanak, Crossfit, Zumba, Spinning, Pilates, Mantenimendu gimnasia* 62 urtetik gorakoentzat, *Puntua eta kakorratza, Euskal dantzak, Ehoziri lanak, Joskintza, Luzaketak, Yoga*, 12-18 urte bitartekoentzako *Dantza modernoa* eta 7-12 urte bitartekoentzako *Xakea*.

11:00etatik 20:00etara, ugerlekuak egunero zabalik. Hilaren 6ra arte.

Hilaren 20ra arte, Areatzako Mendi Martxarako (urri bigarrenak 3) izen-emotea rockthesport.com webgunean.

Euskal Diasporaren Asteako bazkarirako txartelak Aldamin jatetxean salgai. Plaza kopurua mugatua da, 80 lagun. Hilaren 2ra arte.

Marrazketa ikastaroak. *Manga eta komiki* ikastaroa, 14 urtetik gorakoentzako, 40 euroan; *Pokemon karten* ikastaroa, 6 urtetik gorakoentzako, 25 euroan eta *Hiri-marrazketa* ikastaroa, astean egun bat (ordu bi), 50 euro hilean + 40 euro materialerako. Izen-emotea 617 332 691 edo martin@estudioduende.com helbidean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Urri lehenengoaren 25era arte, bialdu daitekez argazkiak BEGITUren Udako Argazki Lehiaketarako begitu@begitu.eus helbidera.

Eingo eskolako matrikulazioa 2026-2027 ikasturterako. 7 urtetik aurrera: triki eta pandero taldeak, txistu taldea, aniztasun funtzionaleko taldea, helduentzako musikea, EingoBand sorrerea eta dantzazaleak. Garbe 23-24 (Igorre). Informazioa: 673 654 867.

ARTEA

Hilaren 10eko jaietako herri afarirako txartelak salgai Herriko Bentan eta Izar Zurian, 20 euroan. Hilaren 2ra arte.

Hilaren 12ko jaietako herri bazkarirako izen-emotea udaletxean. Hilaren 2ra arte.

Hilaren 9an jokaturako diran jaietako herri olinpiadetan izena emoteko epea zabalik. 12 urtetik gorako herritarrentzako. Epea hilaren 2ra arte zabalik udaletxean.

Jaietako mozorro gauerako izena emoteko epea zabalik hilaren 3ra arte. Izena emoteko aurkeztu partaide kopurua eta erabiliko dan pendrive-a udaletxean.

DIMA

Udaleku irekiak goizez 2013 eta 2021 urteen artean jaiotakoentzat hilaren 4ra arte.

Hilaren 4ra arte, 2026-2027 kursoko ikastaroetarako izen-emotea kultura.dima@bizkaia.org helbidean edo 94 631 57 25 zein 685 759 997 telefonoetan.

Hilaren 13ra arte, urri bigarrenetik martiara izango dan aisialdiko begirale ikastaroan izen-emotea [\[urtxintxaeskola.eus\]\(mailto:urtxintxaeskola.eus\) helbidean edo 94 432 04 45 telefonoan.](mailto:eskola@</p></div><div data-bbox=)

II. Urkiola-Eskuagatz Rogainean izen-emotea. Bederatzi eta lau orduko probetarako: <https://sico.fedo.org/carrera.php?id=20162437>. Ordu biko probarako: <https://www.deporticket.com/web-evento/13698-rogaine-urkiola>. Hilaren 21era arte.

IGORRE

08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

Hilaren 13an Ernaik Donostian deitutako manifestazinora joateko autobuserako izen-emotea. Axular Herriko Tabernan.

Hilaren 19an izango dan Inbiu eguneko bazkarirako txartelak salgai. Helduen menuak 20 euro eta umeenak, 18. Txartelak jubiladuenean eta Eguzki tabernan salgai.

LEMOA

08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

11:00etatik 19:30era, ugerlekuak egunero zabalik. Hilaren 6ra arte.

Urri bigarrenaren 17an ospatuko dan Bizkaiko Erromeria Eguneko bazkarirako txartelak salgai erromeriaeguna.eus webgunean (helduentzako haragizko edo barazki menuak 18 euro eta umeentzako menuak 12,5 euro).

Zemendiaren 8ra arte, X. Lemoatx Traileko (zemendiak 15) martxa eta lasterketetarako izen-emotea buscametas.com webgunean.

Hilaren 12ko bertso bazkarirako txartelak salgai udaletxean. Umeek 10 euro eta helduek 20. Hilaren 3ra arte.

11:00etatik 14:00etara, hilaren 4ra arte liburutegia zabalik goizez.

Ikastaro eta tailerretan izena emoteko epea zabalik: *Eskulanak, Informatika, Mugikorrarekin argazkigintza, Bizitzak josten, Xakea haurtzaraon, Euskara-eskolak, Euskara merkatariarentzat, A1 prestatzea, Berbalagun, Makillaje masterclass, Emozioak, Maskulinitate berriak, Burua martxan, Mundu digital segururantz, Mugimendua eta ongizatea, Bakardadeari aurre egiten eta Sendabelarrak*.

UBIDE

08:00retatik 21:00etara, Lopena

espazioa zabalik egunero.

Hilaren 10era arte, Ubideko Bira mendi martxarako (hilak 12) izen-emotea kronoak.com webgunean.

ZEANURI

Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHkoentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

URRI LEHENENGOAK 2
DIMA

Obako jaiak. 18:00etan, txupina. Ostean, trikitilariak eta kopaua.

LEMOA

San Antolin jaia. 12:00etan, mezea. Ostean, barauskarria Eingo taldeak girotuta; 13:00etan, azkolarien erakustaldia Mendieta Herri Kirol taldearen eskutik; 14:00etan, Baba Lehiaketako lapikoen aurkezpena; 16:30ean, erromeria Joxe Mendizabalegaz eta 18:15ean, petanka Lemoatx erara.

ZEBERIO

13:00etan, mezea eta ostean kopaua; 18:00etan, Porrotx, Marimotots, Pupu eta Loreren, *Zerua lapurtu dute* lana.

URRI LEHENENGOAK 3
ZEANURI

Euskal Diasporaren Astea. 19:30ean, Payada + bertsoak, Kultur Etxean. Xabier Paya eta Oihana Bartra bertsolariak eta Wilson Saliwonczyk payadorea. Eñaut Intxaurraga izango da gai-emoilea.

ZEBERIO

Sandoni jaiak. Ikusi 5. orrialdea. Hilaren 7ra arte.

URRI LEHENENGOAK 4
DIMA

Obako jaiak. 20:00etan, Tortilla Txapelketea, ume eta helduen kategorietan. Izen-emotea 19:00etan.

IGORRE

Euskal Diasporaren Astea. 19:00etan, Aitzol Salaberria Goñiren *Transmisioa* dokumentalaren proiektzioa, Lasarte Aretoan. Ostean, berbaldia egileagaz.

ZEANURI

Erakusketea. Ermiten historiari buruzko hamaseigarren mendeko idatzien zatien



Urbasa ikuskizuna Igorren

Hilaren 12an, zapatua, Hutsun txalapartari bikoteak eta Ortzi zirku artistak, euren *Urbasa* atzen ikuskizunaren emonaldia egingo dabe Igorreko Lasarte Aretoan arrastiko 20:00etan.

Urbasa txalapartari bikoteak eta zirku artistak batera prestatutako testurik bako ikuskizuna da eta bertan txalaparta eta akrobaziak buztartuten ditue artistek. Ikuskizunaren sinopsiak dino natureagaz erabateko harmonian bizi diran personai biren istorioa kontatzen dau, euren lasaitasuna indarrez eta teknologiaz mobidutako bisitari inbaditzaile batek aldatzen dauan arte.

kopiak udaletxeko Pleno Aretoan hilaren 11ra arte.

URRI LEHENENGOAK 5
AREATZA

Euskal Diasporaren Astea. 12:00etan, herri-kirolak Jasoka taldeagaz; 13:30ean, kalejirea Eingo eskolako trikitilariakaz; 15:00etan, bazkaria Aldamin jatetxean; 18:30ean, Tandilgo dokumentalaren proiektzioa; 19:00etan, jantza-plazea Ander Elorduigaz; 20:00etan, Tandilgo jantza taldea Xabi Aburruzagagaz eta 21:30ean, Arbasoak taldearen kontzertua. Bazkarirako txartelak Aldamin jatetxean salgai. Plaza kopuru mugatua, 80 lagun. Marrazki Festa be ospatuko da 11:30etik aurrera.

DIMA

Obako jaiak. 19:00etan, Yogurinha Borovaren *Bingo musikatua*. Mozorrotuta joateko deia egin dabe; gaia: bingoa eta musikea. Ostean, txitxi-burduntzia eta 21:00etan, Bola Txapelketea, ume eta helduen kategorietan. Ostean, Mitxel Play.

Autoen IV. Dimako Igoera. 08:15etik 11:15era, egiaztapen administratiboak, bulego iraunkorreak; 08:30etik 11:30era, egiaztapen teknikoak, udaletxeko plazan; jarraian, ibilgailuen aurkezpena parke itxian; 11:45ean, urteteko baimena daukien ibilgailuen zerrendea, bulego iraunkorreak; 12:15ean, parte-hartzaileen karabanea laguntza-parkera, BI-2543 errepidetik; 13:00etan, entrenamentu libreak; jarraian, entrenamentu ofizialak eta lasterketako txanda ofizial biak; 20:00etan, emaitzak, udaletxeko plazan.

IGORRE

Arratia Motor Taldearen XXVI. Kontzentrazioa Garben. 10:00etan, izen-emotea (20 euro); 11:30ean, motor ibilbidearen hasikerea; 15:00etan, bazkaria, kafea eta txupitox; 17:00etan, Los Vecinos del 5º taldearen kontzertua eta 18:00etan, sarien zozketea.

ZEANURI

Ermiten Mendi Martxea. Izen-emotea: 07:00retatik aurrera, herriko plazan. Joko Alaiko bazkideek: nagusiek 7 €. Umeek, 14 urtera arte 4 €. Joko Alaiko bazkide ez diranek: nagusiek 10 €. Umeek, 14 urtera arte 6 €. Urtekerea: 07:30ean, herriko plazatik. Ibilbide luzeak 35 kilometro inguru ditu, ertainak 28 eta laburrak 15 inguru. Egun eta aste osoan zehar *Ermita proiektua* izeneko erakusketea ikusgai izango da plazan eta baseleiza bakotxean.

ZEBERIO

21:00etatik 03:00etara, taxi zerbitzua egongo da doban jaietan Ugao, Artea eta Igorre artean. Zerbitzua eskatzeko 609 610 855 telefonora deitu behar da.

URRI LEHENENGOAK 6
DIMA

Obako jaiak. 12:00etan, Dimatik Obarako krosa. Nordic Walkingekoen urtekerea, 11:30ean Dimako frontoitik. Atleten hitzordua, 11:30ean Obako plazan; 14:30ean, auzo bazkaria; 17:00etan, Briska Txapelketea; 18:00etan, Igel Txapelketea eta 19:00etan, txokolatea.

URRI LEHENENGOAK 7
ARTEA

Andra Mari jaiak. Ikusi 7. orrialdea. Hilaren 13ra arte.

BEDIA

16:30etik 19:30era, informazio gunea

eta liburutegia astelehenetik barikura zabalik.

17:00etatik 19:30era, ludotekako ikasturtearen hasikerea. Astelehenetik barikura zabalik.

16:30etik 19:30era, informazio gunean Udalak eraturako ikastaroetan eta Gaztegunean izena emotea. Hau da ikastaroen eskaintzea: *Yoga, Pilates, Koroa, Euskal dantzak, Jauziri dantza taldea, Euskera ikasteko ikastaroa, Marrazketa, Gimnasia erritmikoa, Memoria kognitiboa, Digitalizazio irisgarria, Batzen-kido* eta *Saltsa/merenge* dantzak. Hilaren 18ra arte.

16:30etik 19:30era, urri bigarrenaren 17an, Errioxako Baigorri bodegara egingo dan urtekerarako izen-emotea. Hilaren 18ra arte.

IGORRE

Astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Astelehenetik eguenera 16:00etatik 20:30era eta eskola opor egun eta barikuetan 09:00etatik 13:30era.

LEMOA

16:30etik 19:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

URRI LEHENENGOAK 8
LEMOA

Andra Mari jaiak. 12:00etan, meza nagusia Andra Mari eleizan. Ostean, Durundi Barri jantza taldearen emonaldia eta 19:00etan, *Atsoak dantzan* kale-antzerkia Kulturguneko plazan.

URRI LEHENENGOAK 11
ARTEA

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik autobusa etxera bueltetako.

URRI LEHENENGOAK 12
AREATZA

Corbeira igoerea Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñak antolatuta. 09:00etan, urtekerea Areatzako frontoitik; 14:45ean, hildako bazkideei omenaldia Pagomakurren; 15:00etan, sagardotegi erako bazkaria Pagomakurren Trikitxotx-en eskutik eta 19:00etan, garagardozaleen arteko derbia TQC tabernan. Izena 691 529 748 (Iker Zamakona) zenbakian emon hilaren 9ra arte.

LEMOA


Andra Mari jaiak. 13:00etan, poteo musikatua Arratiako Musika Eskolako trikitilariakaz Herraduratik; 15:00etan, bertso-bazkaria Kulturguneko plazan (euria bada, eskolako aterpean). Bertsolariak: Aissa Intxausti eta Igor Elortza; 17:30ean, Andra Mari Futbol Txapelketea Arlonagusian Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatuta eta 19:30ean, poteo musikatua Arlonagusia futbol zelaitik hasita.

URRI LEHENENGOAK 14
BEDIA

16:30etik 19:30era, informazio gunean *Gazteentzako hiri-irristaketa* ikastaroaren izen-emotea zabalik hilaren 18ra arte. 12-26 urte bitartekoentzat. Ikastaro egunak urri bigarrenak 3, 10 eta 17 Freeskate academy klubean (Deustun) 16:00etatik 20:00etara.

KOMIKIA

Molekulas



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

ALOKATZEKO ETXE BILA

Arratian, Igorren balitz hobeto, bere seme-alaba biakaz bizitza barri eta duin bat biziten hasi ahal izateko etxebizitza baten bila nabilen ama naz. Telefonoa: 662 312 325.

ERIZAINAK ETA

GEROKULTOREAK BEHAR DIRA

Erizainak eta gerokultoreak topetan gabiz Dimako egoitzarako. Lanpostuak eskuragarri. Bidali CVa edo WhatsApp bidez jarri hartu-emonetan, edo deitu 627 128 634 telefonora.

TABERNARI EUSKALDUNEN BILA

Axular Herriko Tabernan tabernari bi behar dira astegoienerarako, irailetik aurrera. Interesa euki ezkerro, bidali mezu bat edo deitu 633 530 925 telefonora.

BIZIKLETEA SALGAI

Umeentzat, koloretsua, Dora Esploratzailearen marrazkiekaz. Lauzpabost urteko umearentzat. Errobera txikerrak, aurrean zestillea eta atzean pelutxearentzat kutxa. Egoera eta itxura onean. Eskatu edo ikusteko deitu: 670 825 753.

GARAJE-PLAZEA ALOKAIRUAN

Kotxeak sartzeako garaje-plazea alokatzen da Zeanuriko plazan, Ibarreta auzoan. Interesdunek deitu edo idatzi 634 448 820 telefonora.

BEDARRA EBAGITEKO MAKINEA SALGAI

Stihl RMA 339 makinea. Bateriaduna da, ez gasolina ezta elektrikoa. 5 urte ditu. Prezioa adostu daiteke. Telefonoa: 661 273 192.

ANTXUME EDO AUMAK SALGAI

Antxume edo aumak salgai, bizitarako edo okelatarako. Deitu: 667 939 370.

ETXEKO GARBIKETAN

LAGUNTZEKO LAN ESKAINTZEA

Etxeko garbiketan laguntzeko lana eskaintzen dogu Dimako pisu txiki baten. Interesa badaukazu, deitu hurrengo zenbakira: 685 766 578.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Areatza Musik and Beer jaialdiko txapela eta boltsea.

Maidar Larrea (Areatza)
Mari Tere Bilbao (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara.

BEGITUk 24 urte eta ehundaka lagun.



94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a Tel. 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia Tel. 609-79-40-54

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanak · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA
Belitza dago jabetza *Bekoa dago proiektu*
-Salmentan zein alokatuan
Lurrak (arabizak, landak, basak...)
Etxebizitzak (pisuak, baserriak, etxeak...)
Garajeak
Lokal komertzialak
Pabiloiak...
-Balerazioak
Irakin berriak erakitzeko
Informazioa
Arkitekto-proiektuak
-Baina diseinua
-CEE eta ITE-ak
-Irteerak oinarrituta
-Negozioak irekitzeko
kudeaketa
arratia
INMOBILIARIA
Lehendakari Agirre 35, 1. solairua - Igorre
Agirre 35, 1. solairua - 48140 20 31
94 673 92 93 - 94 673 92 82
web: www.arratia.com

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 36
IGORRE
-
TEL. 94 631 92 00

GORBEIALDE
LANDA GARAPENA
ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

Kili~Kili
Ampa eta Puzakultura
Lehendakari Agirre 35 - IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 673 42 81

BEGITU

Olaetxe
OPTICA ZENTRUA
Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es



94 678 20 81

Ondo ospatu herriko jaia eta Merkarterea!

AILARAK JATETXEA

Herriko Plaza 2, 48142 Arteaga (Bizkaia)

- UDAKO ORDUTEGIA:**
Asteleneetik domekara 11:00-23:00
Martitzenetan zarratuta
Sukaldearen ordutegia 12:00-16:00
- EGUNEKO MENUA ASTELEHENETIK BARIKURA.**
- ASTEGOIENETAN ERRETEGI KARTA:**
Hasierakoak, sartenekoak, okelak, arrainak eta postreak daukaguz aukeran.



Euskara eroso ikasi eta bizitzeko

50 urte aek
Euskal Herriko eskola

Arratiako AEK

EUSKARA-IKASTARROAK

Matrikula zabalik

- Matrikula zabalik, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak

Elexalde 10, Igorre - 94 631 56 57 - 607 632 916 - arratio@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzaren HAZE Arratiako udal guztiek diruz lagunduta.

BEGITU

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2026AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2026an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina dauka martxan Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?



*Gainera Begituren produktu honek helduko jatzuz etxera doban.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarteak Herriko plaza 24. 48142 Arteaga.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 40€ ☐ 60€ ☐ 80€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

begitu.eus

